

## SEIGARREN TITULUA

### "MODULUEN" ARAU PARTIKULARRAK

#### **1.- AMETZAGAINA.**

Azalera: 37,365 ha.

##### A.- Irizpideak eta helburuak:

Leku estrategikoan dago puska hau –Urumea eta Ategorrieta behean dituela eta Loiolatik eta Intxaurrendotik oso hurbil–, eta, hala, han den gotorlekuaren inguruan aisiarako eremu bat sortzeari ekitea planteatzen du (gotorlekuaren aztarnak eta haren inguruak duen balioa azpimarratzea eta basoa biziberritzea), begiratoki bat ere izango duen egonleku bat eta ibilbide-sare bat eratuta eremu hori sortzeko.

Lurzoruak orain dituen erabilerei eutsi eta biziberritzeko –baso autoktonoa, bereziki–, baratzeak kentzea ere sartuta dago, egoteko lekuak handitu eta lurraldearen iragazkortasuna hobetzeko hartara. Asmo horrekin, badago «modulu» den ibilbide-sarea zabaldu eta tratatzeko proiektua ere. Ez da ibilgailu motordunen trafikorik onartuko, eta mugatuta izango da haien sarbidea. Hala, bi aparkaleku-eremu txiki izango dira, Tuniz-etxea (Otxoki) eta Plazentzi (Uba) baserrien inguruan.

«Moduluaren» tratamendu orokorraren baitan, bide bazterretako landare-hesi batzuk berreskuratu eta beste batzuk sortu ere egingo dira, zenbait zuhaitz eta zuhaixka erabilia (astigarra, lizarra, gurbea, elorri zuria, elorri beltza, zuhandorra, beltxalea...), eta ihartuta edo gaixo daudenak bota, kimatu edo bakandu egingo dira, sasiak jo eta tratamendu fitosanitario batzuk ere egingo dira, dagoena zaindu eta hobetze aldera. Era berean, hostozabalak, erkametz, gaztainondoa, urkia, haritza, pegoa, lizarra, gereziondoa, astigarra eta beste arbola klase batzuk aldatzea ere egingo da, lurra prestatzea, lantzea eta itxiturak ere eginda; eta baita erabilera publikoko larreetako belarra moztu eta ongarritu ere.

##### B.- Hirigintza araubide partikularra:

Ekipamendu komunitariorako den eraikina finkatu egingo da.

Aparkaleku bat ere hartuko du eremuak, plan honetan jarrita den gutxieneko zuzkidura izango duena.

Planaren arauetan jarritakoa aintzakotzat hartu eta aireko lineak egokitzeari ere helduko zaio.


Desjabetze sistema erabiliko da.

Egin behar diren obrak egin ahal izateko, eremuaren antolaketa proiektua idatziko da, plan berezi honetan ezarritako irizpideak garatuz, betiere.


##### C- Grafikoa:



Hona hemen antolaketaren grafiko bat (gutxi gorabeherakoa), 1:5.000 eskalakoa.

# MODULO DE AMETZAGAINA



ESCALA: 1/5.000



-  APARCAMIENTOS de 5 a 10 plazas
-  30 plazas
-  de 50 a 80 plazas
- A** Posibilidad de estacionamiento de autobuses
-  FRONDOSAS
-  CONIFERAS
-  Puntos de actuacion singular

PLAN ESPECIAL DE ORDENACION  
"PARQUE DE LAU-HAIZETA"